



190 EREDUAREN AURKEZPENERAKO DISEINU LOGIKOAK

ERREGISTROEN AZALPENA

Atxikitzaile bakoitzeko, bi erregistro mota sartuko dira. Horiek lehen posizioetatik bereiziko dira, irizpide hauen arabera:

1. MOTA: Atxikitzailearen erregistroa: identifikazio datuak eta aitopenearen laburpena. 1. motako erregistroaren diseinua, eranskin honetan bertan aurrerago azaltzen dena.

2. MOTA: Ordainketen erregistroa. 2. motako erregistroaren diseinua, eranskin honetan bertan aurrerago azaltzen dena.

Aurkezpenaren ordena erregistro motaren arabera izango da. 1. motarako, erregistro bakarra egongo da eta 2. motarako, berriz, aitopenean jasotako ordainketa adina erregistro.

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerretik hasiko dira betetzen eta eskuinaldetik zurienez beteak agertuko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

Hizkuntzaren karaktere bereziak adierazteko ISO-8859-1 kodeketa erabiliko da. Horrela, «Ñ» letra 209 ASCII balorea izango da (Hex. D1) eta «Ç» letra (zedila maiuskula) 199 ASCII balorea (Hex. C7).

Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen eta ezkerretik zeroz beteak agertuko dira, zeinurik gabe eta trinkotu gabe.

Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, edukia eremu guztiek izango dute. Edukirik ez badute, eremu numerikoak zeroz beteko dira, eta alfabetiko/alfanumerikoak bete gabe utziko dira.

Taldekako aurkezpena egiten bada (atxikitzaile bat edo kontura sartzera behartutako bat baino gehiago fitxategi berean) euskarriaren lehen erregistro moduan zero motako erregistro bat aurkeztuko da, aurrerago erregistro mota horretarako deskribatzen den diseinuari jarraituz. Horrek aurkezpena egiteaz arduratzen den pertsona edo entitatearen datuak jasoko ditu, eta derrigorrezkoa izango da pertsona edo entitate hori fitxategian atxikitzaile bezala ere azaldu arren. Ondoren, lehen atxikitzailearen datuak jarriko dira (1. mota), eta haren jasotzaileak gero (2. mota); jarraian, hurrengo atxikitzailearen datuak adieraziko dira, eta horrela hurrenez hurren.



190 EREDUA

A. 0 MOTAKO ERREGISTROA

PERTSONA EDO ENTITATE AURKEZLEAREN ERREGISTROA

| POSIZIOAK | IZAERA | EREMUEN AZALPENA |
|-----------|---------------|---|
| 1 | Numerikoa | ERREGISTRO MOTA "0" (zero) konstantea. |
| 2-4 | Numerikoa | AITORPEN EREDUA "190" konstantea. |
| 5-8 | Numerikoa | EKITALDIA Fitxategian sartu diren aitorten zerga ekitaldiko lau zifrak jarriko dira. |
| 9-17 | Alfanumerikoa | PERTSONA EDO ENTITATE AURKEZLEAREN IFZ Pertsona edo entitate aurkezlearen IFZ jarriko da. Eremu hau eskuinaldetik lerrokatu behar da, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira. |
| 18-57 | Alfanumerikoa | PERTSONA EDO ENTITATE AURKEZLEAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETATE IZENA 1. motako erregistroan pertsona edo entitate aitortzailearentzat adierazi den irizpide berberari jarraituz beteko da. |
| 58-109 | Alfanumerikoa | PERTSONA EDO ENTITATE AURKEZLEAREN HELBIDEA Eremu hau bederatzitan banatzen da: 58-59. SG: Kalearen siglak. 60-79. KALEA Kalearen izena. Alfabetikoa izan behar du eta, beraz, izenean zenbakiak dituena hizkiekin adieraziko da (adibidez: maiatzaren 1a, maiatzaren lehena idatziko da). Errepidea denean, km laburdura jarriko da bukaeran. 80-84. ZENBAKIA Etxearen zenbakia edo puntu kilometrikoa (zenbaki hamartarrik gabe). Numerikoa izan behar du, eta bost posiziokoa. |

85-86. ESKAILERA

87-88. OINA

89-90 ATEA

91-95. POSTA KODEA

Pertsona edo entitate aurkezlearen zerga helbideari dagokiona. Numerikoa izan behar du eta bost posiziokoa.

96-107. UDALERRIA

Hamabi posizio hartzen ditu. Izenak hamabi karaktere baino gehiago baditu, lehen hamabiak jarriko dira artikulua eta preposizio gabe.

108-109. PROBINTZIA KODEA

2. motako erregistroan (ordainketen erregistroan) «Probintzia kodea» eremurako adierazitako irizpide berberari jarraituz beteko da. Numerikoa.

110-114

Numerikoa

ATXIKITZAILEAK, GUZTIRA

Bost posizioko eremu numerikoa. Taldekako fitxategian guztira zenbat pertsona edo entitate atxikitzaile sartu diren adieraziko da (1. motako erregistro grabatuen kopurua).

115-123

Numerikoa

JASOTAKO ORDAINKETA KOPURUA, GUZTIRA

Bederatzi posizioko eremu numerikoa. Taldekako fitxategian zerrendatutako ordainketa kopuru osoa adierazi behar da. Kopuru horrek bat etorri behar du fitxategian ageri diren atxikitzaileen 1. motako erregistroetan (136tik 144ra arte posizioetan) adierazitako kopuruen baturarekin (2. motako erregistro grabatuen kopurua).

124

Alfabetikoa

EUSKARRI MOTA

Konstantea: «T».

125-173

Alfanumerikoa

HARREMANETARAKO PERTSONA

Harremanetarako pertsonaren datuak.

125-133. TELEFONO ZENBAKIA

Bederatzi posizioko eremu numerikoa.

134-173. DEITURAK ETA IZENA

1. motako erregistroan atxikitzailearentzat adierazi den irizpide berberari jarraituz beteko da.

174-500

ZURIUNEAK

* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira.

* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko/alfabetikoak zuriunez beteko dira.

* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik lerrokatu behar dira, eta ezkerraldeetik zeroz beteko dira.

* Eremuaren azalpenean kontrakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldean lerrokatu behar dira, eta eskuinaldean zuriunez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.



190 EREDUA

B. 1. MOTAKO ERREGISTROA

ATXIKITZAILEAREN ERREGISTROA

| POSIZIOAK | IZAERA | EREMUEN AZALPENA |
|-----------|---------------|---|
| 1 | Numerikoa | ERREGISTRO MOTA "1" konstantea. |
| 2-4 | Numerikoa | AITORPEN EREDUA "190" konstantea. |
| 5-8 | Numerikoa | EKITALDIA Aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira. |
| 9-17 | Alfanumerikoa | ATXIKITZAILEAREN IFZ Eremu hau eskuinaldetik lerrokatu behar da, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira. |
| 18-57 | Alfanumerikoa | ATXIKITZAILEARN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIJETATE IZENA Pertsona fisikoa bada, jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez. Errentak esleitzen dituzten per-tsona juridikoak edo entitateak direnean, sozietatearen izen osoa jarriko da, anagramarik gabe. Eremu honetan ezingo da inola ere merkataritza izenik jarri. |
| 58 | Alfanumerikoa | EUSKARRI MOTA Konstantea: "T". |
| 59-107 | Alfanumerikoa | HARREMANETARAKO PERTSONA Eremu hau bitan banatzen da: 59-67. TELEFONO ZENBAKIA Bederatzi posizioako eremu numerikoa. 68-107. DEITURAK ETA IZENA Jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez. |
| 108-120 | | ZURIUNEAK |

121-122

Alfabetikoa

AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKO AITORPENA

Aurkezten dena bigarren edo ondorengo aitorpen bat denean, honako eremu hauetako bat beteko da nahitaez:

121. AITORPEN OSAGARRIA

«C» jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia lehendik aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean aipatu gabe -utzi ziren ordainketak sartzea bada.

122. ORDEZKO AITORPENA

«S» jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia ekitaldi berberari dagokion aurreko aitorpen bat baliogabetu eta bere osoan ordezkatzea bada. Ordezko aitorpenak aurreko aitorpen bat bakarrik ordezkatu dezake.

123-135

ZURIUNEAK

136-144

Numerikoa

JASOTAKO ORDAINKETA KOPURUA, GUZTIRA

Atxikitzaile honentzat fitxategian aitortutako ordainketa kopuru osoa jarri behar da, ordainketa gakoak edo azpigakoak edozein direla ere. (2. motako erregistroen kopurua).

145-160

Alfanumerikoa

JASOTAKO ORDAINKETEN ZENBATEKO OSOA

Eremu hau bitan banatzen da:

145. ZEINUA

Eremu hau alfabetikoa da. Bete beharrekoa izango da baldin eta ordaindutako zenbateko osoa lortzeko egindako batuketaren emaitza (1. motako erregistroko 146tik 160ra arteko posizioak) 0 (zero) baino txikiagoa bada. Horrelakoetan, «N» bat jarriko da. Beste edozein kasutan, eremu honen edukia hutsune bat izango da.

146-160. ZENBATEKOA

Eremu numerikoa da. Koma hamartarrik gabe jarriko dira egindako ordainketa osoetan (ordainketen erregistroetako 82-94, 109-121, 256-268 eta 283-295 bitarteko posizioak) adierazi diren kopuruen batura, ordainketa gakoa edozein dela ere. Ordainketen erregistroak betetzean, jarraian aipatzen diren eremu hauek «N» batez markatu badira, «Ordainketa osoaren zeinua», «Gauza bidezko ordainketaren zeinua», «Lanerako ezintasunetik eratorritako ordainketa osoaren zeinua» edo «Lanerako ezintasunetik eratorritako gauza bidezko ordainketaren zeinua» (2. motako erregistroko 81, 108, 255 eta 282 posizioak hurrenez hurren) aurreko ekitaldietan bidegabeki edo soberan egindako ordainketen itzulketa delako, zenbateko horiek minus zeinuarekin islatuko dira batura honetan adierazi beharreko zenbateko osoak adieraztean.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

146-158. Ordainketen zenbateko osoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

159-160. Ordainketen zenbateko osoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

161-175

Numerikoa

ATXIKIPENEN EDO KONTURAKO SARREREN ZENBATEKO OSOA.

Zeinurik eta koma hamartarrik gabe jarriko da «Egindako atxikipenak», «Konturako sarrerak» edo «Lanerako ezintasunetik eratorritako prestazioen atxi-kipenak» eta «Lanerako ezintasunetik eratorritako gauza bidezko prestazioengatik egindako konturako sarrerak» eremuak betetzean (2. motako erregistroko 95- 107, 122-134, 269-281 eta 296-308 bitarteko posizioak) adierazi diren zenbatekoen batura, ordainketa gakoak edo azpigakoak edozein direla ere.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

161-173. ZENBATEKO OSOAREN ZATI OSOA

Atxikipenen eta konturako sarreraren zenbateko osoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

174-175. ZENBATEKO OSOAREN ZATI HAMARTARRA

Atxikipenen eta konturako sarreraren zenbateko osoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

176-225

Alfanumerikoa

**HARREMANETARAKO
ELEKTRONIKOA**

PERTSONAREN

HELBIDE

Harremanetarako pertsonaren helbide elektroniko bat jarriko da.

226-500

ZURIUNEAK

- * Zenbateko guztiak positiboak izango dira.
- * Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira.
- * Edukirik ez duten eremu alfanumeriko/alfabetikoak zurienez beteko dira.
- * Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik lerrokatu behar dira, eta ezkerraldeetik zeroz beteko dira.
- * Eremuaren azalpenean kontrakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldeetik lerrokatu behar dira, eta eskuinaldeetik zurienez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.



MODELO 190

C. 2. MOTAKO ERREGISTROA ORDAINKETA ERREGISTROA

| POSIZIOAK | IZAERA | EREMUEN AZALPENA |
|-----------|---------------|--|
| 1 | Numerikoa | ERREGISTRO MOTA "2" konstantea. |
| 2-4 | Numerikoa | AITORPEN EREDUA "190" konstantea. |
| 5-8 | Numerikoa | EKITALDIA 1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da. |
| 9-17 | Alfanumerikoa | ATXIKITZAILEAREN IFZ 1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da. |
| 18-26 | Alfanumerikoa | JASOTZAILEAREN IFZ Pertsona fisikoa bada jaso-tzailearen IFZ jarriko da. Jasotzailea errentak esleitzen dituen entitatea denean (ondasun komunitatea, sozietate zibila, onartu gabeko herentzia, etab.), haren IFZ jarriko da. 14 urtetik beherakoak zerga alorreko harremanetan edo zerga eragina dutenetan identifikatzeko, jarri behar dira bai 14 urtetik beherako pertsonaren datuak (identifikazio fiskaleko zenbakia, barne) eta bai legezko ordezkariarenak. Eremu hau eskuinaldera lerrokatu behar da, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira. |
| 27-35 | Alfanumerikoa | LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ Jasotzaileak 14 urte baino gutxiago baditu, legezko ordezkariaren IFZ jarriko da eremu honetan (aita, ama edo tutorearena). Eremu hau eskuinaldera lerrokatu behar da, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira. Gainerako kasuetan, eremu honetako edukia zuriunez beteko da. |

JASOTZAILEAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIJETATE IZENA.

a) Pertsona fisikoak badira, jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez.

b) Errentak esleitzen dituzten entitateak direnean, entitatearen izen osoa jarriko da, anagramarik gabe.

PROBINTZIA KODEA

a) Izaera orokorrean, jasotzailea bizi den probintziako edo, hala bada, autonomia erkidegoko bi digitu numerikoak jarriko dira, honako zerrenda honen arabera:

| | | | |
|-------------|----|--------------|----|
| ARABA | 1 | LEON | 24 |
| ALBACETE | 2 | LLEIDA | 25 |
| ALACANT | 3 | LUGO | 27 |
| ALMERIA | 4 | MADRIL | 28 |
| ASTURIAS | 33 | MALAGA | 29 |
| ÁVILA | 5 | MELILLA | 52 |
| BADAJOS | 6 | MURTZIA | 30 |
| BARTZELONA | 8 | NAFARROA | 31 |
| BURGOS | 9 | OURENSE | 32 |
| CACERES | 10 | PALENTZIA | 34 |
| CADIZ | 11 | PALMAS, LAS | 35 |
| KANTABRIA | 39 | PONTEVEDRA | 36 |
| CASTELLO | 12 | ERRIOXA | 26 |
| CEUTA | 51 | SALAMANCA | 37 |
| CIUDAD REAL | 13 | S.C.TENERIFE | 38 |
| KORDOBA | 14 | SEGOVIA | 40 |
| CORUÑA, A | 15 | SEVILLA | 41 |
| CUENCA | 16 | SORIA | 42 |
| GIRONA | 17 | TARRAGONA | 43 |
| GRANADA | 18 | TERUEL | 44 |
| GUADALAJARA | 19 | TOLEDO | 45 |
| GIPUZKOA | 20 | VALENTZIA | 46 |
| HUELVA | 21 | VALLADOLID | 47 |
| HUESCA | 22 | BIZKAIA | 48 |
| BALEARRAK | 7 | ZAMORA | 49 |
| JAEN | 23 | ZARAGOZA | 50 |

b) Kasu berezia. Ordainketak jaso dituztenak ohiko egoitza atzerrian duten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak badira, zergaren foru arauaren 4.1 artikuluan aipatuak (Espainiako misio diplomatikoetako kideak, Espainiako bulego kontsularretako kideak, eta abar), probintzia kode gisa «98» digituak jarriko dira.

Ez dira inolaz ere sartuko 190 ereduan lurralde espainiarrean egoitzarik ez duten pertsonen edo entitateen dagozkien ordainketak haiek PFEZaren zergadunak ez badira. Horrek ez du kentzen, hala ere, ordainketa horien buruzko informazioa jasotzea, hala badagokio, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan egindako atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpenean (296 ereduan), zeina aipatuta baitator 2016ko maiatzaren 17ko 11/2016 Foru Dekretuaren bidez onartutako zergaren erregelamenduko 19.2 artikuluan.

ORDAINKETA GAKOA

Egindako ordainketei dagozkien gako alfabetikoa jarri behar da, gako zerrenda honen arabera:

A. Lanaren etekinak: Besteren konturako langileak, oro har.

Gako hau erabili behar da pertsona edo entitate aitortzaileak lan etekinengatik dirutan zein gauzatan ordaindu dituen zenbateko guztiak zerrendatzeko, betiere B, C eta E letretan berariaz adierazi beharrekoak ez badira. Hortaz, gako honetan honako hauek ere sartuko dira, besteak beste: pertsona edo entitate enplegatzailearekin noiz-behinkako harreman bat eta eguneroko bat izateagatik ordainsariak peonadaka edo egunsarika jasotzen dituzten eskulangileei dagozkien zenbatekoak, lan etekinak menpeko lan harreman berezien ondorioz jasotzen dituztenenak, eta urtebetetik beherako kontratu edo lan harremana duten jasotzaileei dagozkienak.

Gako honetan sartuko dira lanerako ezintasuna dela-eta enplegatzaileak (Gizarte Segurantzarekiko lankidetzak akordioaren indarrez) langileari zuzenean ordaindutako zenbatekoak, izan lankidetzak hori nahitaezkoa izan borondatezkoa. Beste edozein kasutan, lanerako ezintasunak egindako ordainketa horien B01 gakoan jaso behar ditu entitate ordaintzaileak.

Gako honekin zerrendatuko dira PFEZaren Foru Arauaren 56 bis artikuluan pertsona lekualdatuentzat aurreikusitako araubide berezira bildutako zergadunek jaso dituzten ordainsariak, PFEZetik salbuetsi gabeak.

Salbuespen gisa, gauzaz ordaintzen diren lan etekinak ez dira 190 ereduan sartuko, baldin eta horientatik ez bada konturako sarrerarik egin behar PFEZaren Erregelamenduko 99.4 artikuluaen bigarren paragrafoan aurreikusitakoaren arabera (BGAEen bazkide babesleek eta pentsio planen nahiz gizarte aurreikuspeneko mutualitateen sustatzaileek egindako kontribuzioak, zerga oinarria murrizten badute). Dena den, kontzeptu horiei dagozkien datuak 345 ereduan aitortu beharko dira.

Azpigakoa eremuan ageri direnetatik kasu bakoitzean dagokiona jarri behar da nahitaez.

B. Lanaren etekinak: Pentsiodunak eta hartzeko pasiboan jasotzaileak.

Gako honekin zerrendatuko dira Gizarte Segurantzaren eta klase pasiboan erregimenetatik jasotzen diren pentsioak eta hartzeko pasiboak, PFEZatik salbuetsi gabeak, eta, orobat, zergaren foru arauak 18.a) artikuluan aipatzen dituen gainerako prestazioak, diruzkoak nahiz gauzazkoak.

Azpigakoa eremuan ageri direnetatik kasu bakoitzean dagokiona jarri behar da nahitaez.

C. Lanaren etekinak: Langabeziako prestazio edo laguntzak

Gako honekin zerrendatuko dira langabeziagatik ordaindutako prestazioak edo laguntzak, kontzeptu honengatik ordainketa bakarreko modalitatean ordaindutakoak izan ezik.

E. Lanaren etekinak: Kontseilariak eta administratzaileak.

Gako honekin zerrendatuko dira pertsona fisikoei administrazio kontseiluetako edo haien ordeko batzordeetako administratzaile edo kontseilukide izateagatik edo gainerako ordezkari-zainganoetako kide izateagatik dirutan zein gauzatan ordaindutako kopuruak.

Azpigakoa eremuan ageri direnetatik kasu bakoitzean dagokiona jarri behar da nahitaez.

F. Lanaren etekinak: Ikastaroak, hitzaldiak, mintegiak eta antzekoak eta literatura, arte edo zientzia lanak.

Gako honekin adieraziko dira pertsona edo entitate aitortzaileak lan etekinen kontzeptupean diruz zein gauzatan ordaindutako zenbatekoak, betiere ikastaro, hitzaldi, solasaldi, mintegi eta antzekoak emateagatik edo ustiapenerako eskubidea lagata duten literartura, arte edo zientzia lanak egiteagatik ordaindu badira.

Gako honetan jabetza intelektualaren etekinak ere sartuko dira, jasotzailearentzat lan etekinen kalifikazioa dutenean.

G. Jarduera ekonomikoen etekinak: jarduera profesionalen etekinak

Gako horrekin zerrendatuko dira pertsona edo entitate aitortzaileak zergaren Erregelamenduaren 108.1 artikuluan aipatzen diren izaera profesionaleko jarduera ekonomikoen kontraprestazio gisa ordaindutako diruzko edo gauzazko ordainketak. Era berean, gako horretan sartuko dira jabetza intelektualaren etekinak, bai eta irudia ustiatzeko eskubidea lagatzetik eratorritako etekinak ere, baldin eta etekin horiek hartzailearentzat jarduera profesionaletik eratorritako etekintzat hartzen badira.

Azpigakoa eremuan ageri direnetatik kasu bakoitzean dagokiona jarri behar da nahitaez.

H. Jarduera ekonomikoen etekinak: Nekazaritza, abeltzaintza eta baso jardueren etekinak, eta PFEZren erregelamenduko hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera zenbatespen objektiboan dauden jardueren etekinak.

Gako honekin zerrendatuko dira pertsona edo entitate aitortzaileak jarraian aipatzen diren jarduera ekonomikoen kontraprestazio gisa diruz zein gauzatan ordaindu dituen zenbatekoak:

a) PFEZren Erregelamenduko 108. artikulua 4. eta 5. apartatuetan aipatzen diren nekazaritza, abeltzaintza eta baso jarduerak. Jarduera horiei dagokienez, ez dira sartuko diru laguntza arruntak edo kapitalekoak, ezta kalte-ordainak ere. Egonez gero, 346 erduan aitortuko dira.

b) Zenbatespen objektiboan dauden jarduera ekonomikoak, PFEZren erregelamenduko hamargarren xedapen gehigarrian aipatuak.

Azpigakoa eremuan ageri direnetatik kasu bakoitzean dagokiona jarri behar da nahitaez.

I. Jarduera ekonomikoen etekinak: PFEZaren Erregelamenduko 93.2.b) artikuluan jasotako etekinak.

Gako horrekin zerrendatuko dira jabetza intelektualaren edo industrialaren etekinengatik, laguntza teknikoaren prestazioagatik, ondasun higigarrien, negozioen edo meatzeen errentamenduagatik edo ondasun horien birrerrentamenduagatik ordaindutako ordainsariak, bai eta irudi eskubidea ustiatzeko eskubidea lagatzetik eratorritakoak ere, baldin eta etekin horiek hartzailearentzat G gakoan sartu beharreko jarduera profesionaletatik eratorritakoez bestelako jarduera ekonomikoen etekinen kalifikazio fiskala badute.

Azpigakoa eremuan ageri direnetatik kasu bakoitzean dagokiona jarri behar da nahitaez.

K. Sariak

PFEZren erregelamenduko 93.2.c) artikuluan aipatzen diren sariak, diruzkoak zein gauzazkoak izan, baldin eta pertsona edo entitate aitortzaileak eman baditu jasotzaileek joko, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan parte hartzeagatik. Barruan sartzen dira 300 euroko atxikipen oinarria ez gainditzeagatik atxikipena edo konturako sarrera egiteko obligaziotik salbuetsita daudenak.

Kanpoan geratzen dira loteria eta apustu jakin batzuetatik eratorritako sarien gaineko karga bereziari lotuta dauden sariak –hogeita zortzigarren xedapen gehigarrian arautzen du karga berezia PFEZaren foru arauak–, eta, orobat, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legean edo zorte, enbete edo zorizko jokoen eta apustuen alderdi penal, administratibo eta fiskalak arautzen dituen otsailaren 25 16/1997 Errege Lege Dekretuan ezarritakoaren babesean antolatutako jokoengatik emandakoak.

Azpigakoa eremuan ageri direnetatik kasu bakoitzean dagokiona jarri behar da nahitaez.

L. ERRENTA SALBUETSIK ETA ZERGAPETU GABEKO DIETAK

Gako honetan hauek sartuko dira: PFEZaren Erregelamenduak ezarritakoaren arabera kargatik salbuetsita dauden dietak eta diru esleipenak –bidai-gastuak ordaintzekoak–, PFEZetik salbuetsita dauden lan errentak, eta, jarduera ekonomikoen etekintzat hartuta egonik, zergaren foru arauko 9. artikuluan xedatutakoarengatik salbuetsita daudenak.

Bidai gastuetarako dieta eta diru esleipenen kasuan eta, orobat, salbuespenak muga kuantitatiboak dituen kasuetan, pertsona edo entitate aitortzaileak ordaindu dituen zenbatekoek legez edo erregelamenduz ezarritako mugak gainditu dituztenean, soberakina aurrekoetatik dagokion gakoan sartuko da.

Azpigakoa eremuan ageri diren etatik aukeratu eta jarri behar da kasu bakoitzean dagokiona.

AZPIGAKOA

B, E, F, G, H, I, K edo L gakoa duten ordainketak direnean, dagokion azpigako numerikoa ere jarri behar da, jarraian jasotzen den azpigakoen zerrendaren arabera:

Ordainketen gakoak beste batzuk badira, eremu hau bete gabe utzi behar da.

190 erudian adierazi behar diren ordainketak aitortutako per-tsona edo entitate berberari badagozkio, eta haien gakoak edo azpigakoak desberdinak badira, beharrezkoak diren ordainketa erregistroak beteko dira, eta erregistro bakoitzean gako bereko, edo, kasua bada, azpigako bereko ordainketen datuak bakarrik jasoko dira.

B GAKOA duten ordainketetan erabili beharreko azpigakoak:

01: INSStik, haren ordezeko entitateetatik eta klase pasiboetatik erretiro arruntagatik jasotako zenbatekoak.

Azpigako hau jarriko da, halaber, zenbatekoak INSStik, haren ordezeko entitateetatik, edo klase pasiboetatik datozen prestazioak direnean eta aldi baterako ezintasunagatik ordaintzen direnean. Zenbateko horiek zuzenean pertsona edo entitate enplegatzaileak ordaintzen baditu (Gizarte Segurantzarekiko lankidetzakoridoaren indarrez), A gakoan adieraziko dira.

03: B gakoari dagozkion gainerako azpigakoetan zerrendatutakoez besteko prestazioak.

10: INSStik, haren ordezeko entitateetatik eta klase pasiboetatik ezintasun iraunkor osoagatik jasotako prestazioak, PFEZaren Foru Arauak 9. artikuluko 3. eta 4. zenbakietan ezarritakoaren arabera salbuetsita gerta daitezkeenean.

11: INSStik, haren ordezeko entitateetatik eta klase pasiboetatik ezintasun iraunkor osoagatik jasotako prestazioak, PFEZaren Foru Arauak 9. artikuluko 3. eta 4. zenbakietan ezarritakoaren arabera salbuetsi ezin daitezkeenean.

12: INSStik, haren ordezeko entitateetatik eta klase pasiboetatik erretiro partzialagatik jasotako prestazioak.

13: INSStik, haren ordezeko entitateetatik eta klase pasiboetatik erretiro aurreratuagatik jasotako prestazioak.

14: INSStik, haren ordezeko entitateetatik eta klase pasiboetatik alargun pentsioetatik jasotako prestazioak.

20: BGAEetatik, pen-tsio planetatik eta PFEZaren Foru Arauaren 70.1 artikuluan aurreikusitako gainerako aurreikuspen sistemetatik borondatezko bajagatik jasotako prestazioak.

21: BGAEetatik, pen-tsio planetatik eta PFEZaren Foru Arauaren 70.1 artikuluan aurreikusitako gainerako aurreikuspen sistemetatik erretiroa dela-eta jasotako prestazioak.

22: BGAEetatik, pentsio planetatik eta PFEZaren Foru Arauaren 70.1 artikuluan aurreikusitako gainerako aurreikuspen sistemetatik lanerako ezintasuna dela-eta jasotako prestazioak.

23: BGAEetatik, pentsio planetatik eta PFEZaren Foru Arauaren 70.1 artikuluan aurreikusitako gainerako aurreikuspen sistemetatik heriotza dela-eta jasotako prestazioak.

24: BGAEetatik, pentsio planetatik eta PFEZaren Foru Arauaren 70.1 artikuluan aurreikusitako gainerako aurreikuspen sistemetatik mendetasuna dela-eta jasotako prestazioak.

25: BGAEetatik, pen-tsio planetatik eta PFEZaren Foru Arauaren 70.1 artikuluan aurreikusitako gainerako aurreikuspen sistemetatik iraupen luzeko langabezia dela-eta jasotako prestazioak.

26: BGAEetatik, pen-tsio planetatik eta PFEZaren Foru Arauaren 70.1 artikuluan aurreikusitako gainerako aurreikuspen sistemetatik gaixotasun larria dela-eta jasotako prestazioak.

27: PFEZaren Foru Arauaren 70.1 artikuluan aipatzen diren BGAEetako, pentsio planetako, aurreikuspen plan aseguratuetako, gizarte aurreikuspeneko plan enpresarialetako eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateetako bazkideek COVID-19aren ondorioz ABEEE bat edo EEE bat jasateagatik edo jarduera galdu eta uzteagatik jasotako langabezia prestazioak.

E GAKOA duten ordainketetan erabili beharreko azpigakoak:

01: Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean besteren konturako langileekin parekatuta ageri diren kontseilari edo administratzaileek jasotako zenbatekoak.

04: 01 azpigakoarekin adierazi ezin diren zenbatekoak.

F GAKOA duten ordainketetan erabili beharreko azpigakoak:

01: Zergan salbuetsita ez dauden literatura, arte edo zientzia sarien zenbatekoak, PFEZaren Erregelamenduko 14.1.g) artikuluan aipatuak.

02. Ikastaroak, hitzaldiak, solasaldiak eta antzekoak emateagatik lortutako etekinak.

03: literatura, arte edo zientzia lanak egiteagatik lortutako lan etekinak, zergaren erregelamenduko 99,1 c) artikuluan izaera orokorrez ezarrita daoen atxikipen tasa aplikagarria dutenak.

04: literatura, arte edo zientzia lanak egiteagatik lortutako lan etekinak, zergaren erregelamenduko 99.1 c) artikuluaaren bigarren paragrafoan ezarrita dagoen atxikipen tasa murriztua aplikagarri dutenak.

05: Jabetza intelektualetik etorrita lan etekintzat hartzen diren etekinak, zergaren erregelamenduko 114.3 artikuluan ezarrita dagoen tasa orokorra aplikagarri dutenak.

06: Jabetza intelektualetik etorrita lan etekintzat hartzen diren etekinak, zergaren erregelamenduko 114.3 artikuluan ezarrita dagoen atxikipen tasa murriztua aplikagarri dutenak

07: Egile eskubideen ustiapena lagatzearen ondorioz egindako konturako aurrerakinak, aurrerakin horiek lan etekintzat hartu eta hainbat urtetan zehar sortzekoak direnean.

G GAKOA duten ordainketetan erabili beharreko azpigakoak:

01: PFEZaren Erregelamenduko 108.1 artikuluan izaera orokorrez ezarritako atxikipen tasa aplikagarri zaien zenbatekoak.

02: PFEZaren Erregelamenduko 108.1 artikuluan ezarritako atxikipen tasa aplikagarri zaien zenbatekoak, etekinak udal biltzaileei, kanpoko zerbitzuak erabiltzen dituzten aseguru-artekariei eta Estatuko Loteria eta Apustuen Estatu Sozietatearen delegatu komertzialei ordaindu zaizkienean.

03: PFEZaren Erregelamenduko 108.1 artikuluan ezarritako atxikipen tasa jarduera hasten den zergaldian eta hurrengo bietan aplikagarri zaien zenbatekoak, etekinak jarduera ekonomikoak hasten dituzten zergadunei ordaindu zaizkienean.

04: Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifen hirugarren sekzioko 851, 852, 853, 861, 862, 864 eta 869 taldeetan eta 01, 02, 03 eta 05 taldeetan sartutako jarduerak egiten dituzten zergadunei ordaindutako etekinetarako PFEZaren Erregelamenduaren 108.1 artikuluan ezarritako atxikipen tasa espezifikoak aplikatu ahal zaien ordainketak, edo jarduera profesional horren kontraprestazioa zerbitzu jakin batzuk ematearen ondoriozkoa denean; hain zuzen ere, jarduera hori besteren kontura eginez gero, arte eszenikoetan, ikus-entzunezkoetan eta musikaletan diharduten artisten lan harreman bereziaren aplikazio eremuan sartuko litzateke, bai eta jarduera hori egiteko beharrezkoak diren jarduera teknikoak edo osagarriak egiten dituzten pertsonen lan harreman bereziaren aplikazio eremuan ere.

05: Jabetza intelektualetik datozen etekinak, zergaren erregelamenduko 114.3 artikuluan ezarrita dagoen atxikipen tasa orokorra aplikagarri dutenak.

06: Jabetza intelektualetik datozen etekinak, zergaren erregelamenduko 114.3 artikuluan ezarrita dagoen atxikipen tasa murriztua aplikagarri dutenak.

07: Egile eskubideen ustiapenaren lagapenetik eratorritako konturako aurrerakinak, aurrerakin horiek jarduera profesionalen etekintzat hartzen direnean eta hainbat urtetan zehar sortuko direnean.

08: Irudia ustiatzeko eskubidea lagatzearen ondoriozko etekinak, jasotzailearentzat bere jarduera profesionaletatik eratorritako etekintzat hartzen direnean.

H GAKOA duten ordainketetan erabili beharreko azpigakoak:

01: Nekazaritza eta abeltzaintza jardueren etekinengatik jasotako zenbatekoak, 02 azpigakoan sartutakoak izan ezik.

02: Txerri eta hegazti hazkuntzako jardueren etekinengatik jasotako zenbatekoak.

03: Basogintzako jardueren etekinengatik jasotako zenbatekoak.

04: PFEZaren Erregelamenduko hamargarren xedapen gehigarrian araututakoaren arabera zenbatespen objektiboan dauden jarduera ekonomikoengatik jasotako etekinak.

I GAKOA duten ordainketetan erabili beharreko azpigakoak:

01: Irudi eskubidea ustiatzeko eskubidea lagatzeagatik ordaindutako zenbatekoak.

02: Jabetza intelektualetik eratorritako ordainketak, PFEZaren Erregelamenduaren 108.1 artikuluan oro har ezarritako atxikipen tasa aplikagarri zaienak.

03: Pertsona edo entitate aitortzaileak PFEZaren Erregelamenduaren 93.2.b) artikuluan aipatutako beste edozein kontzepturengatik egindako ordainketak.

K GAKOA duten ordainketetan erabili beharreko azpigakoak:

01: publizitate helbururik gabeko joko, zozketa edo ausazko konbinazioetan parte hartzeagatik jasotako sarien zenbatekoak, joko, zozketa edo konbinazio horiek 13/2011 Legearen 3. artikuluko a) letran «joko» kon-tzep-tuari ematen zaion definizioan sar-tzen direnean: diru kopuruak edo bestelako ondare elementuak arriskatzea sari edo irabazi bat lortzeko aukeraren truke. Sari horien zenbateko osoa adierazi behar da, nahiz eta jasotzaileak baduen eskubidea zergaldi berean jokoagatik izandako galerak hartatik kentzeko, PFEZaren Foru Arauak 43. artikuluko e) letran ezarritakoarekin bat etorritik.

03 azpigakoa: publizitate helburua duten lehiaketa edo ausazko konbinazioetan parte hartzeagatik jasotzen diren sarien zenbatekoak, haietan parte hartzeko diru ordainketa bat egin beharra ez dagoenean eta, beraz, 13/2011 Legearen 3. artikuluko a) letran «joko» kontzeptuari ematen zaion definizioan sartu ezin daitezkeenean. Honen barruan sartzen dira komunikabideetako programetan eskuratutako sariak eta 13/2011 Legeak 3. artikuluko i) letran definitutakoaren arabera helburu publizitario eta promozionalak dituzten ausazko konbinazioetan lortutakoak.

L GAKOA duten ordainketetan erabili beharreko azpigakoak:

01: Joan-etorri, mantenu eta egonaldi gastuetarako dietak eta diru esleipenak, PFEZaren Erregelamenduko 13. artikulua arabera kargatik salbuetsiak, eta PFEZren foru arauaren hirugarren xedapen gehigarrian jasotako lan etekinak.

02: Indarkeria ekintzengatik jasotako prestazio publikoak, PFEZaren Foru Arauaren 9.2 artikuluan aipatuak.

03: Giza immuno-eskasiaren birusak eragindakoek jasotako laguntzak, PFEZaren Foru Arauaren 9.14 artikuluan aipatuak.

04: 1936-1939 gerra zibilean edo haren ondorioz jasandako lesio edo mutilazioengatik jasotzen diren pentsioak, PFEZaren Foru Arauaren 9.11 artikuluan aipatuak.

05: Langilea kaleratu edo kargugabetzeagatik jasotako kalte-ordainak, PFEZaren Foru Arauaren 9.5 artikuluan eta zergaren erregelamenduko 7. artikuluan xedatutakoaren arabera salbuetsita daudenean.

06: Ezintasun iraunkor absolutuarengatik eta baliaezintasun handiarengatik jasotako prestazio salbuetsiak, PFEZaren Foru Arauaren 9.3 aipatuak.

07: Klase pasiboen erregimenean ezgaitasun edo ezintasun iraunkorragatik jasotzen diren pentsio salbuetsiak, PFEZaren Erregelamenduko 9.4 artikuluan aipatuak.

08: PFEZaren Foru Arauaren 9.12 artikulua arabera salbuetsita dauden prestazioak, pentsioak eta hartzeko pasiboak, honako hauek kanpoan utzita: jaiotzagatik, adingabearen zaintzagatik eta bularreko haurrak zaintzeko erantzunkidetasunagatik ezarritako prestazio salbuetsiak, eta bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren ondorioz jasotakoak, hurrenez hurren, 27 eta 29 azpigakoetan adierazi beharrekoak.

09: Pertsonak etxean hartzeagatik herri erakundeetatik jasotako zenbatekoak, PFEZaren Foru Arauaren 9.10 artikuluan ezarritakoaren arabera salbuetsiak.

10: Beka publikoak eta irabazi asmorik gabeko entitateek emandako bekak, PFEZaren Foru Arauaren 9.9 artikuluan xedatutakoaren arabera salbuetsita daudenean.

11: Giza eskubideen defentsa eta sustapenarekin eta literatura, arte eta zientziarekin zer ikusia duten sari salbuetsiak, PFEZaren Foru Arauaren 9.8 artikuluan eta zergaren erregelamenduko 8. artikuluan aipatuak.

12: Goi mailako kirolariei emandako diru laguntza salbuetsiak, PFEZaren Foru Arauaren 9.15 artikuluan eta zergaren erregelamenduko 9. artikuluan aipatuak.

13: Ordainketa bakarreko modalitatean ordaindutako langabezia prestazioak, PFEZaren Foru Arauaren 9.13 artikuluan salbuetsiak.

14: Nazioarteko bake misioetan eta misio humanitarioetan parte hartzeagatik emandako aparteko haborokinak, PFEZaren Foru Arauaren 9.16 artikuluan eta zergaren erregelamenduak 10. artikuluan xedatutakoaren arabera salbuetsita daudenean.

15: Atzerrian egindako lanengatik jasotako lan etekinak, PFEZaren Foru Arauaren 9.17 artikuluan eta zergaren erreglamenduko 11. artikuluan xedatutakoaren arabera salbuetsita daudenean.

16: Ehorzketa edo hilobiratze kasuetarako jasotako prestazioak, PFEZaren Foru Arauaren 9.22 artikuluan salbuetsiak.

17: Osasun sistema publikoan tratamendua jaso ondoren C hepatitis garatu dutenei emandako laguntzak – ekainaren 5eko 14/2002 Legearen 2. artikuluan aurreikusiak–, PFEZaren Foru Arauaren 9.14 artikuluan ezarritakoarengatik salbuetsitakoak.

18: Gizarte aurreikuspeneko sistemetan pertsona desgaituen alde egindako ekarpenengatik pertsona horiek errenta moduan lortutako prestazioak, PFEZaren Foru Arauaren 9.25 artikuluan xedatutakoaren arabera salbuetsita daudenean.

19: Senitartekoen zaintzarako eta laguntza pertsonalizaturako ematen diren prestazio ekonomiko publikoak, PFEZaren Foru Arauaren 9.26 artikuluan salbuetsiak, baldin eta autonomia pertsonala sustatzeko eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko legetik ondorioztatzen badira.

22: Sektore publikoak emandako laguntza ekonomikoak, PFEZaren foru arauko 9.27 artikuluan eta zergaren Erregelamenduko 12. artikuluan ezarritakoarengatik salbuetsiak, gizarteratzeko gutxieneko errenta gisa administrazio publikoek ezarritako prestazio ekonomikoak sartu gabe, horiek 28 azpigakoan adierazi beharko baitira.

23: Genero Indarkeriaren aurka osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan aurreikusitako laguntzak, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2014ko urriaren 29ko Agindutik eratorritako laguntzak –Agindua, zeinaren bidez ezartzen baita zer prozedurari jarraituko zaion abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitako laguntza ekonomikoa eman eta ordaintzeko–, eta lurralde administrazio publikoek abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan jasotako xedeaz emandako laguntzak, denak ere PFEZaren foru arauak 32.9 artikuluan ezarritakoari jarraituz salbuetsiak.

24: PFEZaren Foru Arauaren 17.2 artikuluan ezarritakoarengatik, gauzako lan etekintzat hartzen ez diren lan errentak.

27: Jaiotzagatik eta adingabearen zaintzagatik ematen diren prestazioak eta bularreko haurrak zaintzeko erantzunkidetasunagatik emandakoak, PFEZetik salbuetsiak.

28: Gizarteratzeko gutxieneko errenta gisa administrazio publikoek ezarritako prestazio ekonomikoak, gabetuta dauden pertsonen bizirauteko baliabide ekonomikoak bermatzekoak, gainerako laguntza salbuetsiak kanpoan utzita, horiek 22 azpigakoan adierazi beharko baitira.

29: Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazio ekonomikoak, maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege-Dekretuaren arabera jasotakoak.

35: PFEZaren Foru Arauaren 56 bis artikuluan pertsona lekualdatuentzat arautzen den araubide berezira bildutako zergadunek jaso dituzten lan etekin salbuetsiak. Lanaren etekin osoei %30 aplikatuta ateratzen den emaitza jarriko da azpigako honetan. Etekin osoen barruan sartuko dira jasotako ordainsariak eta, lekualdaketa dela eta, ordaintzaileak ordaindutako gastuak.

36: Lekualdaketa ondoz ordaintzaileak ordaindutako gastuak (etekin osoen %20ko mugaraino). PFEZaren Foru Arauaren 56 bis artikuluan pertsona lekualdatuentzat aurreikusitako araubide berezira bildutako zergadunen lekualdaketa ondoz ordaintzaileak ordaindu dituen gastuen zenbatekoa jarriko da gako honetan. Enplegatzaileak ordaindutako gastuen zenbatekoa handiagoa denean, etekin osoen %20 jarriko da.

37: Sorrera berriko entitate berritzaileen bazkide fundatzaileentzat ezarritako araubide berezia aplikatzen duten zergadunek jasotako lan etekin salbuetsiak (PFEZaren Foru Arauaren 56 ter artikulua). Lan etekin osoei 100eko 30 aplikatuta ateratzen den emaitza jarriko da azpigako honetan.

42 : COVID-19ak eragindako gaixotasun kontingentziagatik ordaindutako prestazioak, aseguru etxeek Espainiako Aseguru eta Berraseguru Enpresen Elkartearen bidez osasun langileen alde izenpetutako doako aseguru kolektibotik eratorriak direnean.

44: Norberaren konturako langileei edo langile autonomoiei Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek emandako dirulaguntzen edo aparteko laguntzen zenbateko salbuetsiak, horiek jasotzeko arrazoia baldin bada haien jarduera eten, geldiarazi eta larriki kaltetu dela agintari eskudunek COVID-19a dela eta hartutako neurriengatik.

99: Bestelako errenta salbuetsiak: PFEZetik salbuetsitako errentak, 190 erduan adierazi beharrekoak, aurreko azpigakoetan berariaz aipatutakoez bestelakoak.

81-107

Alfanumerikoa

DIRUZ ORDAINDUTAKO KOPURUAK, LANERAKO EZINTASUNETIK ETORRI GABEAK

Eremu hau hirutan banatzen da:

81. ORDAINKETA OSOAREN ZEINUA

Eremu hau beteko da jasotako ordainketak jasotzaileak ekitaldian itzuli dituen aurreko ekitaldietan oker edo soberan jasotako diru kopuruak izateagatik. Kasu horretan «N» bat jarriko da. Beste edozein kasutan, eremu honen edukia hutsune bat izango da.

82-94. (DIRUZKO) ORDAINKETA OSOA

13 posizioko eremu numerikoa. Zeinurik eta hamartarrik gabe jarriko da jasotzaile bakoitzari benetan ordaindu zaizkion diruzko ordainketen urteko zenbateko osoa. Kanpoan utziko dira «Lanerako ezintasunetik eratorritako ordainketa osoa» eremuan adierazi beharreko diruzko ordainketak, ordaintzaile berberak ordaindutakoak.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

82-92: (Diruzko) ordainketa osoaren zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

93-94: (Diruzko) ordainketa osoaren zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

95-107. EGINDAKO ATXIKIPENAK

13 posizioko eremu numerikoa. Zeinurik eta koma hamartarrik gabe jarriko da aurreko eremuan adierazitako diruzko ordainketengatik PFEZaren kontura benetan atxiki den urteko zenbatekoa. Kanpoan utziko dira «Lanerako ezintasunetik eratorritako prestazioen atxikipenak» eremuan adierazi beharreko diruzko ordainketak, ordaintzaile berberak egindakoak.

Ordainketa batek atxikipenik izan ez duenean, eremu hau zeroz beteko da.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

95-105: Egindako atxikipenen zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

106-107: Egindako atxikipenen zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

GAUZAZ ORDAINDUTAKO KOPURUAK, LANERAKO EZINTASUNETIK ERATORRI GABEAK.

Eremu hau lautan banatuta dago:

108. GAUZA BIDEZKO ORDAINKETEN ZEINUA

Eremu hau beteko da ekitaldi honetan jasotzaileak gauzazko ordainketak itzultzen dituenean, aurreko ekitaldietan bidegabeki edo soberan jasotako diru kopuruak izateagatik.

Kasu horretan «N» bat jarriko da. Gainerako kasuetan, eremu honen edukia hutsune bat izango da.

109-121. BALORAZIOA (gauzazko ordainketarena)

13 posizioko eremu numerikoa. Zeinurik eta koma hamartarrik gabe jarriko da ekitaldian jasotzaileari benetan egindako gauzazko ordainketen balorazioen batura. Gauzazko ordainketak zergaren foru arauaren 60. artikuluari jarraituz kalkulatuko dira, inoiz ere konturako sarreraren zenbatekoa sartu gabe. Gauzen bidezko ordainketak eremu honetatik kanpo utziko dira «Lanerako ezintasunetik eratorritako gauzazko prestazioaren balorazioa» eremuan sartu behar direnean.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

109-119: Balorazioaren zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

120-121: Balorazioaren Zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

122-134. KONTURAKO SARRERAK

13 posizioko eremu numerikoa. Zeinurik eta zenbaki hamartarrik gabe jarriko dira, hala badagokio, gauzazko ordainketak gauzatu dituen pertsona edo entitateak egin eta jasotzaileari jasanarazi dizkion konturako sarreraren urteko zenbatekoa. Eremu honetatik kanpo utziko dira konturako sarrera jasanaraziak, baldin eta lanerako ezintasunaren gauzazko ordainketei badagozkie eta «Lanerako ezintasunetik eratorritako gauza bidezko prestazioengatik jasanarazitako konturako sarrerak» eremuan sartu beharrekoak badira.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

122-132: Konturako sarreraren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

133-134: Konturako sarreraren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

135-147 KONTURAKO SARRERA JASANARAZIAK

13 posizioeko eremu numerikoa. Zeinurik eta zenbaki hamartarrik gabe jarriko dira, hala badagokio, gauzako ordainketak gauzatu dituen pertsona edo entitateak egin eta jasotzaileari jasanarazi dizkion konturako sarreraren urteko zenbatekoa. Eremu honetatik kanpo utziko dira konturako sarrera jasanaraziak, baldin eta lanerako ezintasunaren gauzako ordainketei badagozkie eta «Lanerako ezintasunetik eratorritako gauza bidezko prestazioengatik jasanarazitako konturako sarrerak» eremuan sartu beharrekoak badira.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

135-145: Jasanarazi diren konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

146-147: Jasanarazi diren konturako sarreraren zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

148-151

Numerikoa

SORTZAPEN EKITALDIA

Honako kasuotan bakarrik beteko da eremu hau:

a) Urteko laburpenean adierazi diren ordainketen artean atzerakinengatik ordaindutako zenbatekoak daudenean eta horien sortzapena edo exigiarritasuna aitortzen den ekitaldian ez baizik aurrekoetan gertatu denean. Horrelakoetan, behar diren datuak betetzeaz gainera, eremu honetan sortzapen ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira.

Jasotzaile berberari ekitaldi desberdinetan sortutako ordainketak egin bazaizkio, ordainketa horien zenbatekoa eta, halaber, atxikipenena edo konturako sarrerena idazpen (erregistro) desberdinetan zehaztuko dira, eta horietako bakoitzak ekitaldi bereko sortzapenei dagozkien ordainketak eta atxikipen edo konturako sarrerak bakarrik jasoko ditu.

b) Jasotzaileek aurreko ekitaldietan oker edo soberan jasotako diru kopuruak izateagatik, 190 ereduaren barruan ekitaldian itzulitako zenbatekoak adierazten direnean.

Kasu horietan, itzulketa bakoitza zerrendatu behar da, bidegabeki edo soberan ordaindutako kopuruak garai batean adierazteko erabilitako ordainketa-gako edo, hala badagokio, azpigako berberarekin. Haien zenbatekoa jarri behar da, dagokionaren arabera, «Ordainketa osoa» eremuan, «Balorazioa» eremuan «Lanerako ezintasunetik eratorritako ordainketa osoa» eremuan edo «Lanerako ezintasunetik eratorritako gauza bidezko ordainketaren balorazioa» eremuan; eta «N» letraz beteko dira, hurrenez hurren, «Ordainketa osoaren zeinua», «Gauza bidezko ordainketaren zeinua», «Lanerako ezintasunetik eratorritako ordainketa osoaren zeinua» edo «Lanerako ezintasunetik eratorritako gauza bidezko ordainketaren zeinua» eremuak. Kasu horietan, (0) zenbatekoa jarri behar da «Egindako atxikipenak» edo «Konturako sarrerak» eremuan edo «Lanerako ezintasunetik eratorritako prestazioen atxikipenak» eremuan edo, hala badagokio, «Lanerako ezintasunetik eratorritako gauza bidezko ordainketengatik egindako konturako sarrerak» eremuan, eta «Sortzapen ekitaldia» eremuan adierazi behar da jatorriz zer urtetan sortu ziren itzultako ordainketak.

Gainera, 190 eremuan jaso diren ordainketa itzuliei buruzko datuen artean «sartu gabeko zenbateko» gisa kopururen bat jarri bada, «Sartu gabeko zenbatekoa» eremuan zeinurik gabe adierazi behar da benetan itzultako kopuruari dagokion kopuru haien zenbatekoa.

Baldin eta pertsona edo entitate berak hainbat ekitalditan sortutako ordainketak itzuli baditu, haien zenbatekoa idazpen edo erregistrotan banakatu behar da, haietako bakoitzean ekitaldi bereko ordainketen itzulketak bakarrik jaso daitezten.

Beste edozein kasutan, eremu hau zeroz beteko da.

152-157

ZURIUNEAK

158-228

DATU GEHIGARRIAK

Datu hauek betetzeko, kontuan hartuko da zeintzuk jakinarazi dizkion jasotzaileak pertsona edo entitate ordaintzaileari, PFEZaren Erregelamenduko 101. artikuluan xedatutakoaren arabera.

158-166

Alfanumerikoa

BIZIKIDETZA UNITATEAREN TITULARRAREN IFZ

L29 gakoari dagozkion ordainketetarako bakarrik.

Nahitaez bete beharreko eremua, «Bizikidetza unitatearen titularra» eremuaren edukian 2 zenbakia adierazi denean. Kasu horretan, bizikidetza unitatearen pertsona fisiko titularraren identifikazio fiskaleko zenbakia jarriko da.

Eremu horrek desberdina izan behar du «Aitortzailearen IFZ» eta «Jasotzailearen IFZ» eremuekiko.

Eremu hau eskuinaldera lerrokatu behar da, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.

Beste edozein kasutan, eremu honen edukia tartea izango dira.

167

Numerikoa

DESGAITASUNA

A gakoa duten ordainketetarako bakarrik.

Jasotzailea pertsona desgaitua bada eta 100eko 33ko minusbaliotasuna edo handiagoa badu, eremu honetan minusbaliotasun maila adierazten duen kode numerikoa jarriko da, zerrenda honen arabera:

1: Jasotzailearen desgaitasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65etik beherakoa bada.

2: Jasotzailearen desgaitasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65etik beherakoa bada, eta, gainera, mugikortasun mugatuko egoeran dagoela frogatzen badu.

3: Jasotzailearen desgaitasun maila 100eko 65koa edo handiagoa bada.

168

Numerikoa

HARREMAN MOTA

A gakoa duten ordainketetarako bakarrik.

Besteren kontura lanean ari diren enpleguak badira, jasotzailearen eta pertsona edo entitate atxikitzailearen artean dagoen kontratu edo harreman mota adieraziko da dagokion digitu numerikoa jarri, zerrenda honen arabera:

1: Izaera orokorreko kontratu edo harremana. Hurrengo 2. eta 3. kode numerikoetan sartzen ez diren egoera guztiak hartzen ditu.

2: Urtebetetik beherako kontratu edo harremana eta lan harreman berezi batetik eratorritako kontratuak, arte eszenikoetan, ikus-entzunezkoetan eta musikaletan aritzen diren artistei eta jarduera hori garatzeko beharrezkoak diren jarduera tekniko edo osagarriak egiten dituzten pertsonen dagozkienak, salbu eta 4 kodean jasotako kasuan.

3: Menpeko lan kontratu edo harreman berezia, salbu eta 2 kodean jasotako artisten lan harremanetik eratorritako etekinak eta espetxeetan dauden presoek lortutako etekinak eta desgaituek lan harreman berezien ondorioz lortutakoak, horiek guztiak 1 kodean sartzen direla joko baita.

4: Ordainsariak peonadaka edo egunsarika jasotzeagatik, eskulangileek berezkoa duten noizbehinkako harremana, PFEZaren Erregelamenduko 100.3 artikulua 2. erregelari aipatua.

Gertatzen bada pertsona berberari kontratu edo harreman mota desberdinetatik datozen zenbatekoak ekitaldi berean ordaindu zaizkiola, hark egindako ordainketen zenbatekoa eta, halaber, egindako atxikipenena edo konturako sarrerena idazpen edo erregistro desberdinetan zehaztuko dira, eta horietako bakoitzak kontratu edo harreman mota berberari dagozkion ordainketak, atxikipenak edo konturako sarrerak bakarrik jasoko ditu.

Dena dela, urtebetetik beherakoa den aldi baterako kontratu bat kontratu mugababe bihurtu denean ekitaldiaren barruan, egindako ordainketen zenbateko osoa eta atxikipenen edo konturako sarreraren zenbateko osoa idazpen edo erregistro bakar batean jasoko dira, eta horretan 1. kodea jarriko da harreman mota gisa.

169

Numerikoa

BIZIKIDETZA UNITATEAREN TITULARRA

L29 gakoari dagozkion ordainketetarako bakarrik.

Eremu honetan behar den kode numerikoa jarriko da, zerrenda honen arabera:

1. Bizikidetza unitatearen titularra jasotzailea denean.
2. Bizikidetza unitatearen titularra jasotzailea ez denean. Kasu horretan, nahitaez bete beharko da «Bizikidetza unitatearen titularraren IFZ» eremua.

170

171-183

Numerikoa

ZURIUNEA

SARTU GABEKO ZENBATEKOA (PFEZaren Foru Arauaren 19.2, 19.bis eta 20. artikulua)

A, B, C, E, F (01-06 azpigakoak), G (01-06 eta 08 azpigakoak), H eta I gakoak duten ordainketetarako bakarrik.

Ordaindu diren zenbatekoen artean, baten bati aplikagarri bazaio zergaren foru arauaren 19.2, 19.bis eta 20. artikuluetan aurreikusitako integrazio portzentajeetako bat, eremu honetan eragiketa honen emaitza adieraziko da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe: ordaindutako zenbatekoa ken zenbateko horri dagokion portzentajea aplikatuta ateratzen den emaitza, alde batera utzita portzentaje hori atxikipen tasa zehazteko kontuan hartzen den edo ordaindutako prestazioei atxikipen tasa finkoak aplikatzen zaizkien

Era berean, jasotzaileari ordaindutako zenbatekoen artean, baten bati, jarduera ekonomikoaren etekin garbia zehazteari begira, aplikagarri bazaio zergaren foru arauaren 25.4 artikuluan aurreikusitako integrazio portzentajeetako bat, eremu honetan eragiketa honen emaitza adieraziko da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe: ordaindutako zenbatekoa ken zenbateko horri dagokion portzentajea aplikatuta ateratzen den emaitza

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

171-181: Sartu gabeko zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

182-183: Sartu gabeko zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

184-196

Numerikoa

GASTU KENGARRIAK (Foru Arauaren 23.a) artikulua)

A, B, C eta E.01 gakoa duten ordainketetarako bakarrik.

Pertsona edo entitate ordaintzaileak PFEZaren Foru Arauaren 22. artikuluan aipatzen diren kontzeptuengatik kontuan hartu duen urteko zenbatekoa jarri behar da eremu honetan, zeinurik eta koma dezimalik gabe.

Eremu honek edukia izan dezake, baita ere, L.05, L.10 eta L.27 gakoa duten ordainketetan, baldin eta, horiek PFEZean salbuetsita egon arren, haietatik kopuruak kendu badira kontzeptu horiek direla kausa, eta hartzailearentzat gastu kengarritzat hartu badira.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

184-194: Gastuen zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

195-196: Gastuen zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

197-209

Numerikoa

EZKONTIDEAREN EDO IZATEZKO BIKOTE-LAGUNAREN ALDEKO PENTSIÓ KONTENTSAGARRIAK

A, B eta C gakoa duten ordainketetarako bakarrik.

Lan etekina jasotzen duen pertsona behartuta badago, epaileak aginduta, ezkontideari edo 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-lagunari pentsio kontentsagarri bat ordaintzera, urteko zenbatekoa jarri behar da, zeinurik eta koma dezimalik gabe.

Beste edozein kasutan, eremu hau zeroz beteko da (0).

Eremu hau zeroz (0) beteko da, baita ere, pentsio kontentsagarria jasotzen duena aitor-tzen den lan etekinaren jasotzailearekin bizi denean.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

197-207: Ezkontidearen aldeko pentsio konpentsagarriaren zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

208-209: Ezkontidearen aldeko pentsio konpentsagarriaren zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

210-226

227-228

Numerikoa

ZURIUNEAK

ONDORENGOAK

A, B eta C gakoa duten ordainketetarako bakarrik.

Hemen adierazi behar da jasotzailearen zenbat ondorengo ahaidek ematen duten eskubidea PFEZaren Foru Arauaren 79. artikuluan aurreikusita dagoen kenkaria aplikatzeko.

229-254

255-281

Alfanumerikoa

ZURIUNEAK

LANERAKO EZINTASUNARENGATIK JASOTAKO DIRUZKO ORDAINKETAK

A eta B01 ordainketetarako bakarrik.

Eremu hau hirutan banatuta dago:

255: LANERAKO EZINTASUNARENGATIK JASOTAKO ORDAINKETA OSOAREN ZEINUA

Eremu hau beteko da jasotako ordainketak jasotzaileak ekitaldian itzultitako kopuruei dagozkienean aurreko ekitaldian bidegabeki edo soberan jasotako diru kopuruak izateagatik. Kasu horretan, «N» bat jarri behar da; beste edozein kasutan, eremu horren edukia zuriune bat izango da.

256-268: LANERAKO EZINTASUNARENGATIK JASOTAKO (DIRUZKO) ORDAINKETA OSOA

13 posizioko eremu numerikoa. Zeinurik eta koma hamartarrik gabe jarriko da lanerako ezintasuna dela-eta enplegatzaileak langileari zuzenean diruz ordaindutako kopuruen urteko zenbateko osoa.

Lanerako ezintasunagatik ordaintzen den prestazioa Gizarte Segurantzarekiko lankidetzak akordioaren indarrez ordaintzen badu enplegatzaileak (izan lankidetzak hori nahitaezkoa, izan borondatezkoa), «ordainketa gakoa» eremuan «A» gakoa adieraziko da. Beste edozein kasutan, ordainketa horiek «B» gakoan adieraziko dira, «01» azpigakoa jarrita.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

Eremu hau bitan banatuta dago:

256-266: Ordainketa osoaren zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

267-268: Ordainketa osoaren zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

269-281 LANERAKO EZINTASUNETIK DATOZEN PRESTAZIOEN ATXIKIPENAK

13 posizioko eremu numerikoa. Adierazi behar da, zeinurik eta koma dezimalik gabe, urtean zer kopuru atxiki den pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura, lanerako ezintasunaren ondorioz diruz ordaindutako kopuruengatik.

Jasotzailearen batek ez badu izan atxikipenik, eremu honetan zeroak jarriko dira.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

Eremu hau bitan banatuta dago:

269-279: Egindako atxikipenen zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

280-281: Egindako atxikipenen zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

282-321

Alfanumerikoa

LANERAKO EZINTASUNETIK ERATORRITAKO GAUZA BIDEZKO ORDAINKETAK

A eta B01 gakoek dagozkien ordainketetarako bakarrik.

Eremu hau lautuan banatzen da:

282 LANERAKO EZINTASUNETIK ERATORRITAKO GAUZA BIDEZKO ORDAINKETAREN ZEINUA

Eremu hau beteko da jasotako ordainketak jasotzaileak ekitaldian itzuli dituen aurreko ekitaldietan bidegabeki edo soberan jasotako diru kopuruak izateagatik. Kasu horretan, «N» bat jarriko da; beste edozein kasutan, eremu honen edukia zuriune bat izango da.

283-295 LANERAKO EZINTASUNETIK ERATORRITAKO GAUZA BIDEZKO ORDAINKETAREN BALORAZIOA

13 posizioko eremu numerikoa.

Baldin eta, Gizarte Segurantzarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenari jarraituta (lankidetzaz hori borondatezkoa edo nahitaezkoa izan), enplegatuak gauza bidezko ez-ohiko prestazioak ordaindu baditu lanerako ezintasunagatik, eremu honetan jarriko da, zeinurik eta koma hamartarik gabe, dena delako ekitaldian lanerako ezintasunagatik gauzen bidez egindako ordainketei dagozkien balorazioen batura; balorazio horiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 60. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu dira, konturako sarreraren zenbatekoa inoiz ere sartu gabe. «Ordainketa gakoa» eremuan A gakoa jarriko da.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

283-293: Zati osoa. Balorazioaren zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

294-295: Zati hamartarra. Balorazioaren zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

296-308 LANERAKO EZINTASUNETIK ERATORRITAKO GAUZAZKO PRESTAZIOENGATIK EGINDAKO KONTURAKO SARRERAK

13 posizioko eremu numerikoa. Zeinurik eta koma hamartarik gabe jarriko da urtean zenbateko konturako sarrera egin duen ordaintzaileak aurreko eremuan adierazitako gauza bidezko ordainketengatik.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

296-306: Zati osoa. Egindako konturako sarreraren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

307-308: Zati hamartarra. Egindako konturako sarreraren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

309-321 LANERAKO EZINTASUNETIK ERATORRITAKO GAUZA BIDEZKO PRESTAZIOENGATIK JASANARAZI DIREN KONTURAKO SARRERAK

13 posizioko eremu numerikoa. Zeinurik eta koma hamartarik gabe jarriko da zein den lanerako ezintasunetik eratorritako gauza bidezko ordainketen ondorioz ordaintzaileak jasotzaileari jasanarazitako konturako sarreraren urteko zenbatekoa.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

309-319: Jasanarazi diren konturako sarreren zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

320-321: Jasanarazi diren konturako sarreren zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

322

Numerikoa

HAURREN LAGUNTZARAKO OSAGARRIA

Datu gehigarria, L29 gakoari dagozkion ordainketetarako bakarrik.

Eremu honetan behar den kode numerikoa jarriko da, hurrengo zerrendaren arabera, honako hau adierazteko:

1. Ekitaldian ordaindutako edozein hilekotan, ordaindutako prestazioak barne hartzen dituela haurren laguntzarako osagarriari dagozkion zenbatekoak (Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legean aurreikusitako osagarria).

2. Ekitaldian ordaindutako edozein hilekotan, ordaindutako prestazioak ez dituela barne hartzen haurren laguntzarako osagarriari dagozkion zenbatekoak (Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legean aurreikusitako osagarria).

323-387

Numerikoa

ESTATUAN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FORU ALDUNDIETAN ETA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN SARTUTAKO ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK

Eremu hori E gakoan jasotako prestazioen kasuan bakarrik bete behar da, prestazio horiek administrazio kontseiluetako, harien ordeko batzordeetako eta beste ordezkari organo batzuetako administratzaile eta kide izatearen ondorio direnean.

Lan etekin mota honen kasuan, entitate ordaintzaileak, etekin horien gainean egindako atxikipenen eta konturako sarrera guztien zenbatekoak jasotzeaz gain –«Lanerako ezintasunetik eratorri gabeko ordainketak» eremuko «Egindako atxikipenak» laukian (95-107 posizioak) eta «Lanerako ezintasunetik eratorri gabeko gauzako ordainketak» eremuko «Konturako sarrerak» laukian (122-134 posizioak) adierazita daude–, azpiero hauek beteko ditu, administrazio eskudun bakoitzari sartutako atxikipenak eta konturako sarrerak bereizita identifikatzeko.

Ondorio horietarako, E gakoaren barruan jaso beharreko mota horretako lan etekinei dagozkien atxikipenak eta konturako sarrerak eragiketa bolumenaren proportzioan sartzen direnean, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 10.1.f) artikulua bigarren paragrafoan eta Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 7.bat.c) artikulua bigarren paragrafoan jasotakoaren arabera, aurreko bi laukien batura [«Egindako atxikipenak» (95-107 posizioak) eta «Konturako sarrerak» (122-134 posizioak)], bat etorri beharko da honako bost azpiero hauetan jasotako zenbatekoen baturarekin:

323-335: ESTATUKO OGASUNA

Hemen jarri behar da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe, abenduaren 26ko 28/1990 Legearen bidez onetsitako Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 10.1.f) artikuluko bigarren paragrafoan eta maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 7.bat.c) artikuluko bigarren paragrafoan aipatzen diren etekinei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreren urteko zenbatekoa, betiere Estatuko Ogasun Publikoan efektiboki ordaindu direnean. Beste edozein kasutan, eremu hau zeroz beteko da.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira. Eremu hau bitan banatzen da:

323-333 Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

334-335 Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

336-348: NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

Hemen jarri behar da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe, abenduaren 26ko 28/1990 Legearen bidez onetsitako Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 10.1.f) artikuluko bigarren paragrafoan aipatzen diren etekinei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreren urteko zenbatekoa, betiere Estatuko Ogasun Publikoan efektiboki ordaindu direnean. Beste edozein kasutan, eremu hau zeroz beteko da.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira. Eremu hau bitan banatzen da:

336-346 Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

347-348 Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

349-361: ARABAKO FORU ALDUNDIA

Zenbaki eremua, hamahiru posiziokoa. Hemen jarri behar da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 7.bat.c) artikuluko bigarren paragrafoan aipatzen diren etekinei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreren urteko zenbatekoa, betiere Arabako Foru Aldundian efektiboki ordaindu direnean. Beste edozein kasutan, eremu hau zeroz beteko da.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira. Eremu hau bitan banatzen da:

349-359 Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

360-361 Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

362-374: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Hemen jarri behar da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 7.bat.c) artikuluko bigarren paragrafoan aipatzen diren etekinei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreren urteko zenbatekoa, betiere Gipuzkoako Foru Aldundian efektiboki ordaindu direnean.

Entitate ordaintzaileak zergak Gipuzkoako Foru Aldundiari soilik ordaintzen dizkionean, azpieremu hau bakarrik beteko da, eta bertan «Egindako atxikipenak» (95-107 posizioak) eta «Kontura egindako diru-sarrerak» (122-134 posizioak) laukien batura jasoko da, aldez aurretik beteta, jasotzaileari ordaindu zaizkion E gako prestazioei dagozkienak.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira. Eremu hau bitan banatzen da:

362-372 Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

373-374 Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

375-387: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Hemen jarri behar da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 7.bat.c) artikuluko bigarren paragrafoan aipatzen diren etekinei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreren urteko zenbatekoa, betiere Bizkaiko Foru Aldundian efektiboki ordaindu direnean. Beste edozein kasutan, eremu hau zeroz beteko da.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira. Eremu hau bitan banatzen da:

375-385 Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

386-387 Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

388-500

ZURIUNEA

- * Zenbateko guztiak positiboak izango dira.
- * Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira.
- * Edukirik gabeko eremu alfanumeriko eta alfabetikoak zurienez beteko dira.
- * Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik lerrokatu behar dira, eta ezkerraldeetik zeroz beteko dira.
- * Eremuaren azalpenean kontrakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldeetik lerrokatu behar dira, eta eskuinaldeetik zurienez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.